

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak 81 polizia berri ditu, 43 foruzain eta 38 udaltzain

Beaumont kontseilaria buru, "Poliziakideen Oinarrizko Prestakuntza (2018)" ikastaroaren bukaerako ekitaldia egin da eguerdian, Baluarten

Ostirala, 2018.eko azaroak 30

Nafarroak 81 polizia berri ditu, 43 foruzain eta 38 udaltzain, gaur eguerdian Baluarten "Poliziakideen Oinarrizko Prestakuntza (2018)" ikastaroari bukaera emateko egin den ekitaldiaren ondoren. Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako kontseilari María José Beaumont buru, bertan izan dira, halaber, Foruzaingoko buru Torcuato Muñoz eta Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolako zuzendari Izaskun Cibiriáin.

Kontseilariak zorionak eman dizkie 2010eko deialdiaz geroztik Foruzain eta 2013az geroztik Toki Polizietako agente bihurtu diren lehen promozio honetako kideei, joan den apirilaren 26an hasi eta 975 eskola-ordu izan dituen formakuntza-ikastaro espezifikoa osatu ondoren.

Foruzaingoaren etorkizuneko 43 agenteek ez ezik, hautaketa prozesu hau Toki Polizietako agente izan nahi duten beste 38 hautagaik ere osatu dute: Barañaingo Udaltzaingoko 4 agente, Lizarrako beste 4, Erriberriko agente 1, Iruñeko 19 udaltzain, Azkoiengo 3, Tafallako 1, Tuterako 1, Eguesibarko 3 udaltzain eta Atarrabiko 2 agente.

85 plaza berri

Beaumont kontseilariak berariaz nabarmendu du, "giza-baliabideez behar bezala hornitutako kalitateko zerbitzu publikoak eskaintzeko" Nafarroako Gobernua legealdi honetan egiten ari den ahalegina. Horren harira gogoratu du, Foruzaingoko agente izateko 85 plaza berri -37 plaza



Beaumont kontseilariak hitza hartu du polizia ikastaro amaiera ekitaldian.



81 foruzain eta udaltzain berrien irudia.

2016ko ohiko LEPea, 17 2017koan eta 31 2018koan- tarteko dituen lan-eskaintza publikoa “helburu horren isla garbia dela, hainbat urte deialdirik egin gabe igaro ondoren”. Kopuru horiei gaineratu behar zaizkie aurtengo LEPea sartuko dituen Inpektore izateko 14 plaza eta Inspektoreorde izateko beste 24 plaza.

Halaber, Departamentuaren arduradunak gogoratu du, Foruzaingoko plantillan izandako jaitzieraren ondorioz, ezinezkoa izan dela Nafarroako Gobernuak segurtasun publikoaren arloan ezarriak zituen erroinei ekitea eta Estatuarekin polizia integralaren eredua pixkanaka-pixkanaka ezarri eta garatzen lagunduko duten eskuduntzei buruzko negoziazioak hastea, horixe baita Nafarroako eta Estatuko gobernuen arteko konpromisoaren ildotik, trafiko eta bide-segurtasunaren arloko eskuduntzen inguruan lantzen ari den esparruetako bat.

Koordinazioa eta Lege berria

Kontseilariak Toki Erakundeekiko koordinazio programa azpimarratu du, Nafarroako Toki Polizia guztiak Foruzaingoaren informazio sistemetan txertatzen dituen, esku-hartzeetan sintonia handiagoa erraztuz eta polizia-lanen prozeduren homologazioa bultzatuz, “ekintzen estaldura nahiz operadore desberdinei eskainitako laguntza eta segurtasuna areagotuz”. Ildo horretan, oinarritzko prestakuntza ziklo hau “Nafarroako polizien arteko koordinazioaren balio handiko eredua” dela esan du.

Beaumontek eskerrak eman dizkio Funtzio Publikoko eta Barneko zuzendaritza nagusietako pertsonalari egindako lanagatik, horixe atxikita baitaude Segurtasun eta Larrialdi Eskola, Poliziaren etorkizuneko profesionalen hautaketa eta prestakuntza prozesuaren azken katebegia, eta Furozaingorako oposizioen zein toki erakundeetako polizietarako hautaketa proben epaimahai kalifikatzaileak.

Azkenik, egun tresna berri bat erabil daitekeela gogoratu du, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legea, eta honek “polizia integrala lortzearen alde hasitako bidean aurrera egiten lagunduko digu”, esan du.

Ikastaroaren edukia

Bestalde, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolako zuzendari Izaskun Cibiriáinek, pertsonen segurtasunarekin zerikusia duten alderdi guztietan Eskolak ematen duen zeharkako formakuntza nabarmendu du, izan ere, Nafarroako polizia guztietako pertsonalari zuzendutako formakuntza ematen du, udaltzaingoak, suhiltzaileak, babes zibileko profesionalak eta azken bi horietako boluntarioak barne harturik.

Cibiriáinek ikastaroaren ezaugarriak zehaztu ditu: 975 eskola-ordu Eskolako lokaletan, Foruzaingoaren nahiz Iruñeko Udaltzaingoaren instalazioetan eta kanpoko beste agerraldi batzuetan. Horrez gain, formakuntza hartu dute Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian eta praktikak egin dituzte egiazko lanpostuetan.

Ikastaroak zortzi modulu izan ditu, eta lehenengoa ‘Polizia Komunitario eta Asistentziala’ deritzona izan da, Genero Berdintasuna, Aniztasunerako Arreta, Herritarrekiko Harremanak edo Polizia-Bitartekaritza bestelako formakuntza-unitateak tarteko. Bigarrenak, ‘Poliziaren eginkizuna eta funtzioak’ izenburupean, Nafarroako Segurtasun Publikoaren sistema, poliziaren antolaketa eta funtzioa eta Etika eta Deontologia profesionalak izan ditu aztergai.

Hirugarren eta laugarren moduluetan, Prebentzioa, Babesa eta Poliziaren Esku-hartzeari buruzko alderdi teknikoak landu dira, esparru profesional hutsari loturiko gaiak.

Bosgarren modulua, Juridikoa eta Polizia-lkerketari buruzkoa, poliziaren lanari dagozkion ekintzak garatzeko modu egokiari buruzko Arau Esparrua lantzeko izan da. Seigarren moduluan, aldiz, Poliziaren Ezaguerak eta Trebetasunak ikasi dira. Informazio teknologiararen erabileratik, prestaketa fisikoraino edo ibilgailuen gidatzeraino, euskarazko zein ingelesezko hizkera teknikoa barne harturik, betiere herritarrekiko komunikazioa hobetzeko xedez.

Azkenik, programan “funtseko” bi modulu landu dira: Praktikak eta Jarrera. Praktikek 352 orduko

iraupena izan dute, lanpostuari dagozkion funtzioak eta zereginak behar bezala ikasteko eta garatzeko xedez. Hainbat polizia zerbitzutan egin dira, ez bakarrik aurreikusita dagoen helburuko zerbitzuan, une oro profesionalen laguntzaz.

Ekitaldiaren bukaeran, Foruzaingoko eta Toki Polizietako agente berriek ohiko txapel jaurtiketa egin zuten.

Galería de fotos



Ekitaldiaren lehendakaritza mahaia eta polizia berriak irudian.